

PRENTSA OHARRA

BAIONAKO XINGAR FERIA 2025

Baserritar xingar onenaren lehiaketan izena emateko epea irekia da

Xingar Feria ireki ohi duen baserritar xingarrik onenaren lehiaketa 562. edizio honetan burutuko da 2025eko apirilaren 10ean, ostegunarekin. Ekoizle partikular guziri irekia da. Izen ematek Baiona Hirian utzi behar dira eta lehiaketaren e egunera (tokian bertan) arteko orenera arte posible izanen dira. 2024an, bertako ekoizleek 26 xingar baserritar aurkeztu zituzten eta Irisarriko Ximun Goyty izan zen lehen saria irabazi zuena, 10,6 kiloko xingarrarekin.

Saihestezina, xingar baserritar onenaren lehiaketa Baionako instituzio bat da. Parte hartzaileak 2025eko apirilaren 10ean, ostegunarekin, 7:30etik 8:30era bitartean espero dira Merkatuko plazan, lehiaketarako xingarra bertan aurkezteko. Egunerako aparkatze doakoaz, ongietorri kafeaz eta Baionako Cercle Taurin erakundeak eskainitako bazkariak gozatzen ahalko dute.

Informazioa eskuratu edo izena eman nahi duten ekoizle pribatu guziek Baiona Hiriarekin harremanetan ezarri behar dute 05 59 59 21 81 telefono zenbakira deituz.

Baserritar xingar onenaren lehiaketaren nondik norakoak

Hasiera batean, epaimahaiak lehen itzuli bat egiten du, xingarra «baionagarria» denez ikusteko. Baserritar lehiaketan parte hartzeko onartutako kalitatezko baserritar xingarra izendatzeko erabili ohi den kalifikatzailea da. Epaimahaiko kideek, gero, xingarrak zundaketa finaren (ezpel edo zaldi-peroneazkoa) bidez probatzen dituzte, ongi definituak diren irizpideen arabera, «usain ona» izan beharko duena hezurreraino. Zigilu bat ezarria izanen da xingarretan, haien kalitatea seguratzeko. Orduan, ofizialki, «baionagarriak» izanen dira. Atxiki eta zenbakitutako xingar guziak epaimahaiaren eskuetatik pasatzen dira, Maisu xingar saltzaile eta gonbidatu batek osatua, zeinak pisatzen, zundatzen, bustitzen, notatzen eta hiru onenak atxikitzen dituzten xingar horien artean. Xingarrak irizpide hauen arabera epaituak dira: mozketa, lehorketa denbora eta usaina.

Lehiaketa lehen saria irabazi duen xingarraren enkante publikoarekin bukatzen da. Salmenta Maître Carayol-ek egiten du.

Sari banaketa apirilaren 10ean, ostegunarekin, 12:00etan, Roland Barthes zabalguneko karpaguneko jatetxe eremuko terrazan gitea aurreikusten da.